

Leioako euskara zerbitzua

FAMILIAN

Aisialdia euskaraz bizi

ITZALEKIN JOLASTUZ

MAIATZAK 8, Sakoneta kiroldegia

Tailer honen helburua itzalen poetikotasunarekin jolastuz esploraziorako eta adierazmenerako espazioa sortzea da. Lehenik, itzal antzerkiaren oinarriko kontzeptuak (argia, objektuak eta pantailak) ezagutuko ditugu eta antzerkigintzaren atal desberdinez (testua, irudia, soinua eta taularatzea) arituko gara. Halaber, argia eta itzalekin jolasteko baliabide desberdinak ikusiko ditugu, partehartzaileek euren antzezlanak sortzeko baliabideak izan ditzaten. Azkenik antzezlan laburrak egingo ditugu eta soinurekin eta ahotsekin jolasak egingo ditugu.

MAIATZAK 15, Gaztelubide

YOGA TAILERRA

Yoga egitea oso onuragarria da, baina familiarrean eginda, are dibertigarriagoa! Gorputza eta buruaren ongizitatea landu, zure harremanak zaintzen dituzun bitartean.

MUSIKAREN BIDAIA

MAIATZAK 22, San Bartolome

Musika tresna batzuk sortuko ditugu eta gero, Sorgina Txirularen istorioei soinua banda jarriko diegu. Musikaz gozatzeko aukera aparta!

MAIATZAK 29, Sakoneta kiroldegia

XUXURLA POESIA TAILERRA

Tailer honen bitartez olerkiak interpretatu eta xuxurlatzen ikasiko dute, xuxurlatzaile-tresna sortuz. Ahozkotasuna eta komunikatzeko gaitasuna landuko da, poesiaren bitartez.

BALENDINA ETA ESPAZIOA

EKAINAK 5, Gaztelubide

Badakizu nor den Valentina Tereshkova? Tailer honetan emakume hau ezagutzeko aukera izango dute familiek eta espazioa izango da saioaren nagusia. Hartu lekua espaziontzian eta bagoaz!

EKAINAK 12, San Bartolome

JOSKINTZA KREATIBOA

Zorro ikaragarri politak egingo ditugu feltroekin eta haien plastikoko orratz handiekin eta trapiloarekin jostea ikasiko dugu. Jostea eta abestea bezain erreza izango da!! Loreekin, letrekin, izarrekin gure zorroa apainduko dugu.

Adi!

Tailer hauek euskara hutsean izango dira, helburua, familia barruan zein familia artean euskararen erabilera bultzatzea eta harreman sarea ehuntzea da. Parte hartzaileek ezinbestean euskara jakin behar dute parte hartzeko.

Estos talleres se desarrollarán íntegramente en euskera, ya que tienen como objetivo fomentar el uso del euskera en el ámbito familiar así como crear y fortalecer la relación entre familias que viven en euskera. Por lo tanto la persona adulta que acompañe al menor debe ser capaz de comunicarse en euskera.

Noiz?

Zapatuetan, goizeko 11:30etan

Norentzat?

4 urtetik aurrera duten haurrentzat + heldu bat
LEKU MUGATUA

Izen ematea eta informazioa

Euskara Zerbitzua, Jose Ramon Aketxe Plaza 11
(Kultur Leioa) 4. Solairua.

✉ Euskarazerbitzua@leioa.net

☎ 946072576

Izena emateko epea

Izena emateko aukera zabalik egongo da tailer bakoitzaren aurreko astelehenera arte

Tailerren iraupena:
70-90 min.
artean.

COVID 19-a dela eta unean-uneko segurtasun eta babes neurri eta arau guztiak berrmatuko dira. Horrek edukiera edo eta egutegia moldatu beharra eragin lezake.



Leioa
UDALA-AYUNTAMIENTO

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral